



Euskal Astea Torneoko finalak - Adierazpenak

Durangoko alkatesak eta Xistera eta Euskadiko Federazioko presidentetek bere iritziak azaldu dituzte

Aitziber Irigoras – Durangoko alkatesa

Niretzat pozgarria da Durango Xistera Zirkuituko lehen finalen egoitza izatea, herri honek zesta puntan bide luzea izan duelako eta Ezkurdi sinbolo bat izan delako. Etorkizunari begira, bidea zabaldu nahi dugu, iraganean hizpidea zen hemen eta etorkizunean hizpidea izaten jarraitzea nahiko genuke.

Ibon Urreisti – Xisterako presidentea

Eskerrak eman nahi dizkiot alkatesari, herriari ere, eta ezin dut ahaztu Lorea Bilbao, proiektu hau biziki bultzatu duelako. Xisteratik harrobiko mezua zabaldu nahi dugu, harrobiarik gabe, etorkizunik ez dagoelako. Mezu hori zabaltzeko, finalak streaming-en bidez emitituko dira www.xistera.eus web orriaren bitartez, beraz, mundu osoan zehar partidak ikusteko aukera egongo da.

Patxi Jauregi – Euskadi Euskal Pilota Federakuntzako Presidentea

Durango beti izan da erreferente bat zesta punta arloan eta ohore bat da guretzat Xisterako lehenengo finalen bataioa hemen izatea, beraz, eskerrak eman nahi dizkiot alkatesari eta herriari. Orain dela bi urte hasi ginen proiektu hau lantzen eta oso garrantzitsua da etorkizunari begira, klub guztiak batuta daudelako eta gure kulturari hain lotura handia daukan kirol honek etorkizunean gora egin dezala espero dugu.



Finales Torneo Euskal Astea - declaraciones

La alcaldesa de Durango y los presidentes de Xistera y la Federación dan su opinión

Aitziber Irigoras- Alcaldesa de Durango

Para mí es una alegría que Durango sea la sede de las primeras finales del Circuito Xistera, porque este pueblo ha tenido una trayectoria larga en cuanto a la cesta y el Ezkurdi siempre ha sido uno de sus símbolos. Queremos abrir un camino para el futuro de esta modalidad, que en el pasado dio mucho que hablar y espero que en el futuro siga dando que hablar.

Ibon Urreisti – Presidente de Xistera

Quiero dar las gracias a la alcaldesa y al pueblo de Durango por su acogida y no me quiero olvidar de Lorea Bilbao, que tanto ha apoyado este proyecto. Desde Xistera queremos dar un mensaje de cantera, de que sin cantera no hay futuro, y deseamos expandir este mensaje emitiendo las finales en streaming a través de www.xistera.eus, por lo que todo el mundo podrá presenciar los encuentros.

Patxi Jauregi – Presidente de la Federación de Euskadi de Pelota Vasca

Durango siempre ha sido un referente para la cesta punta y es un honor que este bautizo de las finales de Xistera se realice en esta localidad, por lo que quiero dar las gracias a la alcaldesa y al pueblo. Hace dos años ya se dieron los primeros pasos de este proyecto, que es muy importante de cara al futuro, puesto que ahora todos los clubes están unidos y esperamos que este deporte tan vinculado a nuestra cultura vaya hacia arriba en el futuro.